

Gure bezeroak nahi duten pertsonak eta delivery aplikazioa dutenak izango dira. Baina adibidez pertsona helduak erabili nahi badute eta ez baldin badakite mugikorra erabiltzen, gure lokaletik pasatzeko aukera izango dute baita. Horretarako aplikazioa bere dispositibo digitaletan instalatu beharko dute. "NutriExpress" jarri behar dute bilatzailean, eta gure aplikazioa bere logoarekin ikusten dutenean, instalatzera eman behar diote. Behin aplikazioa instalatuta, erregistratu eta eskatutako datuak bete besterik ez dute egin behar. Prozesu hori egin ondoren, aplikazioa normaltasunez erabili ahal izango da.

Dieta orekatu bat nola jarraitu ez dakitenentzat, nola erosten diren elikagaiak ez dakitenentzat, janaria prestatzen ez dakitenentzat, janaria prestatzeko gogorik ez dutenentzat eta janaria prestatzen eta osasuntsu jaten ikasi nahi dutenentzat bideratuta dago. Adibidez; pertsona bat bere gurasoekin bizitza osoan zehar egon bada eta sukaldaritza inoiz landu ez badu, oso ondo etorriko zaio NutriExpress aplikazioa izatea, sukaldatzen ikasteko.

<https://docs.google.com/forms/d/1CXUUApch-IrLM2BLyZofxZGI5w8PVLRPSY8MfGGTa2w/edit>